

KUNDERA ETORRI DUK HITAZ GALDEZKA

Pruden Gartzia

AURKEZPENA

Arratsaldeon guztioi, eta bereziki entzuleen artean dagoen Txillardegiri, nire maisu eta lagunari. Ohore bat niretzat bere omenezko ekitaldi batean parte hartzea.

Baina kunplimenduetan luzatu orde, besterik gabe hasiko naiz.

UNAMUNO

Orain dela ehun eta hiru urte, 1901eko abuztuaren 26an, don Migel Unamunok hitzaldi sonatu bat egin zuen Bilbon, ziur aski euskaldunen artean egin zuen sonatuena eta gogoratuena. Iskanbila itzela sortu zuen, gaur egun arte iraun duen iskanbila. Zer esan zuen? Bi hitzetan laburbilduko dizuet:

El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción [...] En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno ... Tenemos que olvidarlo e irrumpir en el castellano [...] ¿Y el vascuence? ... Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia; leguemos a los estudios tan interesante reliquia.” (Unamuno, 1901)

Tira, Unamunoren xeibrekeriak, esango luke norbaitek. Edo euskarari zion gorrotoaren ondorio, esango luke bestek. Baina nik esaten dut, ez bata, ez bestea: Unamunok euskara maite zuen, nik ez dut dudarik, baina, puntu horretan, sasoi hartako European guztiz arruntak ziren iritziak hona ekarri baino ez zuen egin. Alegia, ez zen batere originala izan.

TXEKIA

Adibidez, begira diezaiozun, une batez, sasoi bereko Txekiari. Han ere, itzal handiko intelektual txekiar bat, Hubert Gordon Schauer, honela mintzo zen 1886an, hots, Unamuno baino 15 urte lehenago, soilik 15 urte lehenago:

[txekiarrok] ez al genioke humanitateari mesede handiagoa egingo, geure espiritu-indarrak bat egingo balu kultura mailan gu baino askoz ere gorago dagoen herri handi batekin? [...] Nazio bat berpizteko hainbeste eta hainbeste ahalegin egiteak pena merezi al du? Ba al du benetan gure nazio honek horrenbestearainoko kultur-balioa? Eta nahikoa izango ote zaio balio hori etorkizunean nazio-nortasun galera berriren bati aurpegi emateko? (Hubert Gordon Schauer, in Kundera, 1967)

Jakina denez, sasoi hartako Txekia Inperio Austrohungariarraren zati bat zen, eta alemana zen maila guztietan hizkuntza nagusia, bai administrazioan eta, zer esanik ez, kulturean. Txekiera baserriar ezjakinen eta abertzale buruberoen hizkuntza zen, funtsean. Eta dirudienez, Schauer jaunaren adierazpen hauek, bere sasoiaren, egundoko iskanbila sortu zuten bete-betean berpizkunde nazionalean murgilduta zeuden txekiar gazteen artean. Nik, gutxi gora-behera Bilbon bezala imajinatzen ditut, hitzaldi areto bat bete-betea eta PNVko gazteak Unamunori txistuka eta oihuka...

1957

Baina orain, bat-batean, salto egingo dugu 1957ra. Badakizue, ordurako Txekia nazio independentea da, baina ez osorik librea: aurreko urtean Sobiet Batasuneko tankeak ondoko Budapesten sartu baitziren gogorki zapalduz hungariarren errebolta.

Hego Euskal Herria, hori ere badakizue, frankismoan dago ia guztiz itota.

Eta Unamuno... Unamunok abertzaleen pizti beltza izaten segitzen du eta, gainera, Eliza Katolikoak bere hainbat lan *Indexean* sartu ditu, hots, liburu debekatuen zerrendan, bere kristautasun heterodoxo eta susmagarriagatik. Euskaldun kristau zintzo bat izan da, gainera, horretan gehien lagundu duena: Pildain apezpikua.

Bada, testuinguru honetan, Jose Luis Alvarez Enparantza gazteak bere bizitzako lehen hitzaldia ematen du, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, hots, ia-ia gu gaur hementxe gauden bezala, duela 48 urte. Abertzale batek Unamunori buruz, eta euskaraz? Goitik behera larrutzeko eta porrokatzeko izango da, ezta? Bada, ez. Eta orain, entzun ondo, honela bukatzen baita hitzaldia:

Unamuno ezagutu duenak ez dauka aaztutzerik, eta alde batera ala bestera jotzen du. Astindu egiten du, gogor, eta ez dago geroztik txatxukeriatan ibiltzerik. Arima-gosea ixiotzen du, dirukeria ondatzen du, ta berari eskerrak aurkitu dugu askok gure burua. (Txillardegia, 1957).

Badaezpada ere, errepikatuko dut: Txillardegik dio Unamunori eskerrak “aurkitu duela bere burua”. Tira, ezin esango dugu 1957ko Txillardegia euskal abertzale tipikoa zenik, abertzale tipikoek ez baitzuten Unamuno maite. Ez zen, bestalde, *atipiko* bakarra, besteak beste hor baitago Salvatore Mitxelena, puntu honetan, eta beharbada beste hainbatetan, Txillardegirekin sintonia osoan dagoena. Koldo Mitxelena bera ere ez zebilen hain urrin, hitzaldiaren antolatzaileen artean baitzegoen. Beraz, esan dezagun garbi: Txillardegiren abertzaletasuna oso originala zen, hutsetik sortua ez izan arren, alegia, giro zehatz batean txerta zitekeen arren, giro hori minoritarioa ez, infimoa baitzen sasoi hartako Euskal Herrian.

Baina Txillardegiren originaltasunak badu beste iturri bat Euskal Herriarekin edo Unamunorekin zerikusirik ez duena. Eta iturri hori Paris da, edo zehatzago esanda, Pariseko giro intelektual ezkertiarra, edo, izen bat emateagatik, Jean Paul Sartre.

1968

Eta puntu zehatz honetan, Sartre ez baizik Milan Kundera agertzen zaigu, eskenategian leku bat eskatuz. Eta nor zen Milan Kundera sasoi horretan?

Milan Kundera Txekian jaio zen 1929an, hots, Txillardegia jaio zen urte berean, eta Txillardegik bezala musika maite du ororen buru. Eta Txillardegik bezala, gazte-gaztetatik izan zituen kezka politiko eta literarioak. Baina, Txillardegia ez bezala, kezka politikoek ez zuten orduko erregimenaren opositorik bihurtu, kontrakoa baizik: 1948an, 19 urte zituela, Txekiako Alderdi Komunistan sartu zen, hots, sasoi hartan aginte absolutua zeukan partiduan. Eta horrela, Kunderak gaztetxotatik izan zuen gure Txillardegik inoiz izan ez duen esperientzia bat: gobernuan dagoen partiduaren kide izatea. Beharbada hau kontuan hartzeko puntua da. Eta esan dezagun argi: sasoi hartan, ziur aski, Kunderak bere burua komunista iraultzaileztat izango zuen.

Dena den, laster hasi zitzaizkion arazoak. Alderdi Komunistan sartu eta urte pare batera, bota egin zuten, “alderdiaren aurkako jarduerengatik”. Tira, susmatzen dut esperientzia hau bai, ezagunagoa egingo zaiola gure Txillardegiri. Baina segi dezagun aurrera. Kundera ez zen

horregatik gobernuaren opositore bat bihurtu. Idazten hasi zen eta bere lehen liburuek (1953, 1955, 1957 eta 1962) komunista gazte baten lana izaten segitzen dute, inolako zalantzarik gabe. Horregatik ez da arraroa ikustea 1956an, hots, tanke sobietikoak Budapesten sartu ziren urte berean, Kundera berriz ere Alderdian onartu zutela. Halaber, ordurako idazle ezagun bat zen Txekian.

Ez da dudarik: Kundera komunista bat zen eta bere gobernuarekin bat egiten zuen, nahiz eta han-hemenka, bere lanetan, heterodoxiaren zantzuak antzeman omen daitezkeen, besteak beste, Txekiako jende xumearentzat duen joera filoabertzalean. Baina, hauxe da daturik garrantzitsuen gaur, 1960-65etik aurrera bere Alderdiaren sektore bat sozialismo *desberdin* baten aldeko erronkan sartua zen, alegia, alderdiaren diktadura laxatuko zuen sozialismo baten bila eta, bereziki, Sobiet Batasunaren *babesa* bertan behera utziko zuen sozialismo berri baten bila. Sasoi hartan *sozialismo humanista* deitzen zitzaion, edo *giza aurpegidun sozialismoa*.

Milan Kundera bete-betean dago mugimendu horretan sartuta. Areago, 1967an argitaratzen du bere lehen nobela, *Txantxetan* (frantsesez *La plaisanterie* eta gaztelaniaz *La broma* bezala argitaratu direnak). Nobela politiko tipikoa, askorentzat 68ko Pragako udaberriaren erakusgarri osoena. Egundoko arrakasta izan zuen, lehenik eta behin Txekoslovakian, ondoren beste hainbat lekutan. Alderdi iraultzaileen monolitismo estupiduaren kritika gupidagabea, osagarri autobiografiko nabarmenak ditu.

Ez da hori, ordea, guretzat interesgarriena. Urte horretako, hots 67ko ekainean, Kunderak hitzaldi sonatu bat egiten du Txekiar Idazleen IV. Kongresuan eta hitzaldi hori ere mugarri bat bihurtzen da Txekiar mugimendu sozialistaren historian, bereziki idazle eta intelektualen artean.

Baina Jean Paul Sartre aipatuko lehentxoan, eta ordua da berarengana itzultzeko. Sartrek pasioz beterik segitzen du Txekoslovakiaiko esperientzia, handik urte gutxi-gutxira Burgosko Auzia segituko duen pasio berberarekin. Sartrearentzat, Txekiarren eredia da Europako etorkizuna; Kundera bera pertsonalki ezagutzen du eta aipatu dugun hitzaldia bere aldizkarian argitaratzen du frantsesez, 68ko apirilean.

Baina Kunderaren hitzaldi hori dela-eta, entusiasmoa, egiazko entusiasmo eta poza, gure Txillardegik erakusten du hurrengo hilabetean, hots, 68ko maiatzean *Zeruko Argian* ateratzen duen artikuluan: “Milan Kundera eta gu”. Eta maiatzeko giro horretan, Parisen gazte unibertsitariak tarteta-tarteka Frantziako polizia harrikatu, Unibertsitateko aretoetan hitzaldi sutuak bota eta, legendak esaten duenari segituz, areto horietan beraietan ikasleek maitasuna sentitu ez ezik egin egiten duten bitartean, giro bero horretan, gure Txillardegik hauxe idazten du Kunderari buruz:

Gure arteko sasi-jakintsu batzuk euskal kultura “burgestzat” baztertzen duten momentuan, oso egokia litzake ahal duten irakurleek Kundera txekotar intelektualaren hitzaldi mamitsua gogoan hartzea. (Txillardegik, 1968)

Izan ere, Kunderaren hitzaldia, hain ondo egokitzen zaio Txillardegiren pentsamenduari ezen badirudi berak idatzia dela. Eta zer dio Kunderak? Adibidez, hauxe:

“Ba ote daki nazioak bere sortea bere kulturaren esku dagoela? Edo zapuztu egin ote du gure berpizkunde garaiko intelektualek zuten konbentzimendua, balore kulturalik gabe nazio esistentziarik ez zegoela zioteneko konbentzimendu hura?” (Kundera, 1967)
Edo “...guretzat geure nazional esistentziaren justifikazio eta garantia kultura delakoan nago.” (Kundera, 1967)
Edo, azken aipua: “...herri txikiek ezingo diote beren hizkuntza eta nortasunari eutsi kultur-kreazioz baizik, kreazio horretan renplazatu ezinezko baloreak daudelako, alegia. Zalantzarik gabe *plzenske pivo* (Pilsen zerbeza, alegia), balore bat gehiago da, estimatua

oso mundu zabalean ... Baina pilsen zerbezak ez luke justifikatuko Txekiarren eskubidea hizkuntza berezia edukitzeko”. (Kundera, 1967)

Argi dago, ezta? Pilsen zerbezaren orde txakolina ipini, eta Jose Luis Alvarez Enparantza ateratzen zaigu, koma bat aldatu behar izan gabe. Ondorioa garbia da: **“ala gure hizkuntza dialekto koskor bat bihurtzen utzi eta kultura folklore hutsa, ala bestela bere ondorio guztiakin eskubide guztiko nazio europearra izan.”**. Nork dio hori, Txillardegik Euskal Herriaz edo Kunderak Txekiaz? Berdin dio, ezta?

Beraz, hemen ere ez da dudarik: Kundera komunista iraultzailea abertzale kulturalista bihurtu da, sozialista izateari utzi gabe, haatik.

DIBERJENTZIA

Bai, 68ko maiatzean Kunderak eta Txillardegik anaia bikiak ematen dute, Pragan, Parisen, Kalifornian, Euskal Herrian ere, berdin da: “gauden denok anai”, esaten zuen euskal kanta batek. Baina, jakina denez, hortik aurrera gauzak franko aldatu ziren, nahiz eta aldaketa denak ez ziren batera etorri.

Izan ere, maiatzean ez, abuztuan, tanke sobietikoak Pragan sartzen dira eta txotxongiloz osatutako gobernu bat inposatzen dute. Aldaketaren hasiera da.

Txillardegik, zer esanik ez, gogor protestatuko du. Jean-Paul Sartrek ere gogor salatuko du komunisten jarrera, bai Txekian eta bai, bereziki, Frantzian. Baina Kunderak?

Bada, Kundera Pragan zegoen eta zaila da horrelako egoera batean zegoen pertsona bati buruz ganorazko ezer esatea. Esan dezagun bakarrik zazpi urte geroago, 75ean, erbestera doala, Frantziara, eta beste sei urte geroago, 81ean, frantses-nazionalitatea hartzen duela. Tartean, partidutik botatzen dute eta bere liburuak debekatzen dira Txekian. Baina denbora aurrera doa, eta bada momentua argi eta garbi galdetzeko zergatik ekarri dudan hona Kundera, alegia, Txillardegiren omenezko ekitaldi batera.

Bada, zehatz-mehatz, honegatik: Parisen bizitzen hasten denetik espero zitekeenaren kontrara, Kunderak guztiz abandonatzen du *idazle engaiatuaren* papera eta *artista hutsaren* figura errebindikatzen du, iraultzaren eta aberriaren eskakizunetik kanpo dagoen artistarena, alegia. Beste hitz batzuekin esanda: Jean Paul Sartreren orde, Johann von Goethe hartzen du eredutzat, hots, idazle *olimpikoa*.

Jakina, asko sinplifikatzen ari naiz: besteak beste, ez dirudi *konbertso* baten aurrean gaudenik, baizik eta urte luzeak eta maila asko duen eboluzio gatazkatsu eta korapilotsu baten aurrean. Baina azken emaitza gardena da eta, nahi baduzue, muturrekoa: 95ean Kunderak bere ama hizkuntza abandonatzen du eta zuzenean frantsesez idazten hasten da. Alegia, ez exilioko lehen urtetan bezala txekieraz idatzi eta frantsesez argitaratu, Txekian bere liburuak debekatuta zeudelako, baizik eta zuzenean frantsesez. Eta hori noiz, eta Berlingo harresiaren erorketaren ondoren berriz ere posible zaionean Txekiara itzultzea.

Baina, eta hauxe da kontua, Kundera ez zen itzuli: Parisen geratu zen, *soinujolearen semea* Kaliforniako arrantxoan geratu zen bezala. Tira, gehitu dezadan nire berrien arabera bizirik eta osasuntsu dela, Parisen edo Suitzan, ez dakit oso ondo non. Baina ez Pragan.

Errepara dezagun: Kunderak abandonatu du ez soilik bere gaztetako militantzia komunista, ez soilik bere ondoko aurpegi sozialista eta abertzalea, baizik eta bere aberria eta bere hizkuntza ere.

Izan ere, eta barkatu egidazue konfiantza: Zergatik maitatu behar dugu gure herria eta gure hizkuntza? Zergatik izan behar diegu leialak?

KONPROMISO ETIKOA

Bukatuko dut.

Denok dakigunez, Jean Paul Sartreentzat bizitza, existentzia, erroan konpromiso etiko bat da, engaiamendu bat. Idazlea bereziki, intelektuala oro har, behartua dago konpromiso etiko bat hartzera injustiziaren aurrean. Denok dakigunez ere, Txillardegi, puntu honetan bederen, sartreanoa da guztiz, alegia, euskaraz ikasi behar dugu eta hitz egin behar dugu herri honekiko konpromiso etiko bat daukagulako. Honela idatzi du *Euskal Herria helburu*-ren bukaeran: “baina nik *hautua* egin nuen gaztetan herri zafratu eta iraindu honen alde” (Txillardegi, 1994:318).

Txillardegirentzat euskaraz egitea ez da arazo pribatu bat, ez. Aitzitik, herri honekin daukagun konpromiso etiko baten ondorio ezinbestekoa da: euskararen heriotza, herri honen heriotza, finean (sinonimoak baitira) injustizia bat da eta geu injustizia horren aurka errebelatu behar gara, aktiboki errebelatu. Hortik euskaraz hitz egiteko betebeharrak etikoak. Hortik abertzaletasuna.

Txillardegiren euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna betebeharrak etiko baten ondorio dira. Kunderak, aldiz, mota horretako konpromiso etikoekin apurtzen du eta, hortik aurrera, hizkuntza arazo pribatua bilakatzen da. Arazo pribatu huts hutsa.

Horra hor, nire ustez, bien artean dagoen aldea.

AZKEN OHARRAK

Bukatu dudala esan dut, baina ez dut bukatu nahi beste ohar pare bat erantsi gabe: Kunderari bere konpromiso etiko-sartreanoa bertan behera uzteak ez dakarkio, inola ere, anti-abertzale (edo anti-nazionalista, nahiago baduzue) bilakatzea, areago gure arteko *ez-nazionalista* autodeituen moldean. Esan dezadan zergatik.

Alde batetik, har dezadan jende horren diskurtsoa soilik termino positiboetan: garbi dago gaur eta hemen *intelektual ez-nazionalista* izatea konpromiso etiko sartreanoren bariante bat besterik ez dela, hots, herriarekin (edo *gizartearekin* beraien terminotan esateko) intelektual gisa konpromiso etiko bat hartzea. Ez da hori Kunderaren jarrera.

Bestalde, komenigarria da Kunderaren testuinguru zehatza kontuan hartzea eta gurearekin alderatzea, adibidez: Txekia independentea da eta txekiera ez dago mehatxupean. Halaber, Kundera ez da Txekian bizi, Parisen (edo Suitzan) baizik. Gainera, ez du hautatu alemana edo errusiera, hots, zapaltzaileen hizkuntza, ezta ingelesa ere, baizik eta frantsesa. Eta bukatzeko, Txekiari dion maitasuna nabari-nabaria da bere liburu guztietan, baita frantsesez idatzitakoetan ere. Kontua da orain maitasun horrek ez dakarkiola inolako konpromiso etikorik, ezta Txekiako jende xehearen hizkuntzan idaztekoa ere.

Baina oraindik ere arrazoi gehiago dago Kundera hemengo intelektual *ez-nazionalista* autodeituekin ez nahasteko. Adibidez, irakurri besterik ez dago bere azkenetako nobela bat, *La lenteur* (1995), ikusteko zein erabateko zorrotasunez kritikatzan duen *intelektual engaiatuaren* figura: Kunderaren begietan pailazo harroputz batzuk dira, besterik ez. Ez duzue inon kritika latzagarrik irakurriko.

Baina, **argi**, ez dirudi Txillardegi bezalakoak dituenik gogoan, Parisen bizi den *ezker jainkotiarra* baizik. Txillardegi bezalako *disidente historikoak*, aldiz, guztiz beste modu batean

tratutzen ditu, alegia, goxotasunez eta maitasun puntu batez, nahiz eta argi eta garbi azaldu beraiekiko dituen distantzia salbaezinak.

Alegia, nire begietan nobela horretan agertzen den txekiar intelektual disidentea, hogeitertean zehar bere gobernuak marjinatu eta zapaldu duena, gure Txillardegiren ispilua litzateke. Aldiz, nobelan agertzen den frantses intelektual *engaiaitu* bezain *jainkotiarrari*, irakurle bipilak berehala aurkituko dio parekoren bat baino gehiago gure probintziotan.

Zeren, laburbilduz: Kunderak tradizio sartreanoarekin apurtu du, eta Txillardegik, aldiz, ez. Bada, kasu **biotan** jakin dezagun bereizten gizona eta lana. Hots, ez dezagun Txillardegi miretsi eta Kundera mespretxatu bata abertzalea delako eta besteak abertzaletasunari uko egin diolako. Edo bata ezkertiarra izaten segitzen duelako eta besteak horri ere uko egin diolako.

Edo bai, gehienez ere miretsi edo mespretxa dezagun **gizona**, baina irakur dezagun **haren lana**. Zeren Txillardegi orain dela 30 urte Parisen bizitzen geratu izan balitz, eta idatzi duen guztia frantsesez idatzi izan balu ere, oso lan onak izango ziren. Zinez ederrak. Eta, bide batez esanda, eta hau ere garbi esan beharra dago, errazago izango zuen Eusko Jaurlaritzaren sariren bat eskuratzea, edo Euskadiko Kutxarena, etab.

Baina Txillardegi Euskal Herrira itzuli zen, euskaraz bizitzera. Horra gakoa. Nire ustez, miresmena zor diogu horregatik, bai, baina mesedez, faborez, otoi, arren, ez horregatik bakarrik. Zeren bere abertzaletasuna gorroto dutenak ere, mesedez, faborez, otoi, arren, irakur dezatela bere lanak, geuk abertzaleok, Unamunorenak edo Pio Barojarenak irakurtzen dugun errespetu berdinarekin.

Mila esker guztioi.

AIPUAK

KUNDERA, Milan (1967) “Kultura eta izaera nazionala” [Txekiar Idazleen Batasunaren IV. Biltzarra irekitzeko egindako hitzaldia, 1967ko ekainean], in *Literatur-Gazeta* 6, (1987 uztaila) [iturria: *Les Temps Modernes*, (1968 avril); euskaratzailea: Juan Manuel Basurko] [hemen kontsultagai:

<http://www.armiarma.com/andima/gaze/gaze0606.htm>] [2004-9-30]

SARTRE, Jean-Paul (1971) “Preface”, in HALIMI, Gisèle, *Le procès de Burgos*, Paris: Gallimard, 1971, VII-XXX.

TXILLARDEGI (1957) “Unamuno eragille”, in *Egan* (1957), 3-4, 170-177.

TXILLARDEGI (1968) “Milan Kundera eta gu”, in *Zeruko Argia*, 273 (lorailak 26, 1968), 3.

TXILLARDEGI (1994) *Euskal Herria helburu*, Tafalla: Txalaparta, 1994.

UNAMUNO, Miguel (1901) “Discurso en los Juegos Florales celebrados en Bilbao el día 26 de agosto de 1901”, in *Obras Completas*, Madrid: Afrodísio Aguado, 1958, VI. tomoa, 290-307.

Datu biografikoetarako batez ere iturri hau erabili dut:

^CULIK, Jan (2000) “Milan Kundera” in

<http://www2.arts.gla.ac.uk/Slavonic/Kundera.htm> [2004-9-30]

Oharra: Milan Kunderaren lan gehienak erraz eskura daitezke frantsesezko edo gaztelaniazko edizio ugurietan.